



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

**Herritarren Partaidetza eta Arreta
Participación y Atención Ciudadana**

HERRITARREN POSTONTZIA 2025EKO TXOSTENA

Udalinfo
Herritarren Arretarako Zerbitzua
Donostia, 2025eko martxoa

AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
--------------	---

DATUAK

Arrazoiaren arabera.....	5
Sarrera-kanalaren arabera.....	6
Auzoaren arabera.....	7
Generoa eta adinaren arabera.....	8
Gaiaren arabera.....	10
Zuzendaritzaren arabera.....	12
Erantzun mailaren arabera.....	14

EBALUAZIOA.....	15
-----------------	----

ONDORIOAK.....	16
----------------	----

HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	17
-------------------------------	----

SARRERA

Txosten honetan, 2025ean Herritarren Postontziaren bidez jasotako komunikazioei buruzko datuak aurkezten dira. Komunikazio horiek dagozkien Zuzendaritzek kudeatzen dituzte, aplikazio informatiko baten bidez. Adierazi behar da herritarrek Udalarekin dituzten harremanak hemen adierazitako datuetatik haratago doazela, beste kanal batzuen bidez ere ematen baitira.

Herritarren Postontziak Udalarekin harremanetan jartzeko aukera ematen du, donostiarrek oharrak, kontsultak, kexak eta iradokizunak aurkez ditzaten. Komunikazio-tresna garrantzitsua da, herritarrek hiriari buruz dituzten kezak eta proposamenak ezagutzeko aukera ematen diona Udalari, bere jarduna hobetzeko.

Postontzia herritarren eskura dago, bai Udalaren webgunean, bai aipatutako [Donostia Eskura](#). aplikazio mugikor berrian. Udalinfo Herritarren Arretarako Zerbitzuan presentzialki edo telefonoz, zein sare sozialen bidez jasotako komunikazioak, Postontzian ere sartzen dira.

Aplikazio informatikoaren bitartez, komunikazio bakoitza eskumena duen udal Zuzendaritza bakoitzera bidaltzen da, hark ebatzi eta/edo erantzun dezan. Sistema osoaren koordinazioa Udalinfo Herritarrentzako Arreta Zerbitzuari dagokio, eta zerbitzu hau arduratzen da komunikazioak dagozkien Zuzendaritzei esleitzeaz eta hauei komunikazioak kudeatzean sortzen zaizkien arazoak edo zalantzak argitzeaz eta konpontzeaz. Horien ikuskapena eta jarraipena ere egiten du.


Informazioa hobeto ulertzeko, txosten honetan grafikoki irudikatu dira daturik aipagarrienak, eta eranskin batean bildu dira zehaztasun handiagoarekin datu guzti-guztiak biltzen dituzten taulak eta aurreko urteekin dagozkien konparazioak.

DATUAK

2025ean 27.519 komunikazio jaso dira guztira, 2024ko kopuru ia-ia berdina (27.488).

COVIDaren ondorioz 2020an izandako igoera handiaren ondoren, azken urteotan komunikazio kopurua egonkortu egin dela ikusten da.


Hurrengo grafikoak azken bost urteotako bilakaera islatzen du. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da erabileraren aldea pandemia aurreko aldiarekiko, % 40 handiagoa baita orain, gutxi gorabehera.



Jarraian, datu horiek hainbat irizpideren arabera banakatzen dira: arrazoia, sarrera-kanala, auzoa, generoa, adina, gaia, Zuzendaritza arduradunak eta erantzun-maila.


Arrazoiaren arabera

Grafikoan ikus daitekeen bezala Postontzia erabiltzeko arrazoi nagusienak kexak aurkeztea eta abisuak ematea dira. Neurri txikiagoan erabiltzen da Udalari kontsultak egiteko eta, oraindik gutxiago, proposamenak egiteko edo esker ona adierazteko.



Datuen bilakaera historikoan ikus daitekeenez, pandemiaren osteko urteetan kontsulta gehiago egiten ziren, eta orain, berriz ere, kexak dira Postontzia erabiltzeko arrazoi nagusia.


2024an ezarri zen arrazoiaren sailkapenaren aldaketarekin, ikusten da abisuak (kalteen, matxuren edo kaleko gorabeheren jakinarazpenak) kexen ia maila beretsuan daudela.



Sarrera-kanalaren bidez

Ehunekoei dagokienez, ez da aldaketa aipagarriarik ikusten aurreko urteekiko. Garrantzitsua da azpimarratzea "Donostia Eskura" app-a ezartzearekin (Postontziaren eta "Nire carpeta"-ren zerbitzuak barne hartzen dituen) kanal horren bidez jasotako komunikazioak web-kanalean zenbatzen direla. Izan ere, app-ak webgunearen sistema bera erabiltzen du, eta app-ko sarrera horiek gaur egun ezin dira aparte zenbatu.

Gauzak horrela, web kanala pittin bat igotzen da eta gainontzerakoak antzeko mantentzen dira. Nabarmentzekoa da komunikazioen ia heren bat analogikoki jasotzen dela, bai telefonoz, bai leihatilan, bai erregistroaren bidez. Sare sozialetan atzemandako komunikazioak aldiz, Postontzian sartzeko interesgarritzat jotzen direnak, oso gutxi dira.




Auzoaren arabera

Aipatu behar da kokapen hauei buruzko datuak erlatiboak direla, Postontzia erabiltzen duten pertsonen % 40k, gutxi gorabehera, ez baitu kokapenari buruzko daturik ematen. Kokapenarena aukerako eremua da. Komunikazio askok izaera generikoa izan dezakete, eta ez dute zertan kokapen zehatzik izan behar.

Jasotako lokalizazioen artean, komunikazio gehien dituen auzoa Amara Berri-Loiolako Erriberak da. Neurri txikiagoan, Altza, Aiete-Miramon eta Intxaurren daude.


Bestalde, kontuan izan behar da komunikazio bakoitzaren kokapenak ez duela zertan bat etorri behar komunikazio hori bidaltzen duen pertsona bizi den auzoarekin.

Txosten honetan erakusten den datua jasotako komunikazioei dagokien kokapenari buruzkoa da.




Generoaren eta adinaren arabera

Komunikazioen guztizkoan, emakumeek (% 54) gizonek (% 46) baino pixka bat gehiago erabiltzen dute Postontzia. Azken urteotan ez da alde honetatik aldaketa nabarmenik izan. Gogoratu behar da generoaren datua ez dela derrigorrezkoa eta komunikazioen heren batean datu hori ezezaguna zaigu.




Adinari dagokionez, 45 eta 65 urte bitartekoek erabiltzen dute gehien Postontzia. Aipagarria da, halaber, 25 urtetik beherakoek ia ez dutela erabiltzen.



Gaiaren arabera

Gai orokorren araberako lehen sailkapen batean ikus daitekeenez, espazio publikoarekin, garbiketarekin eta hondakinekin lotutako gaiak dira ohikoenak Postontzian.

Grafikoan ikus daitekeenez, 2025eko ehunekoak (urdinez) iazkoen antzekoak dira.



Oharra: beste "gai batzuk" horren barruan, sailkatu gabeko komunikazioak eta "askotarikoak" gisa sailkatutakoak zenbatzen dira, eta baita hain ohikoak ez diren "hilerriak", "gizarte-zerbitzuak", "turismoa", "giza eskubideak", "gazteria" eta abarreko gai minoritarioak ere. Hala ere, atxikitutako eranskinean gai espezifiko guzti-guztien zerrendan horietako bakoitzaren xehetasunak kontsulta daitezke.

Ondorengo zerrenda honetan komunikazio gehien erregistratu dituzten 50 gaiak agertzen dira. "Zuhaitzei, landareei eta lorategiei" dagozkienak dira berriz ere komunikazio gehien erregistratzen dituztenak.

Zuhaitzak, landareak, lorategiak	2.233
Edukiontzia	1.738
Espaloiak eta galtzadak	1.697
Zirkulazioa eta trafikoa	1.212
Kale garbiketa	1.208
Argiztapena	1.110
Zergak eta tasak	1.077
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	724

Bestelakoak (hiri altzariak)	646
Aparkalekuak (kalean eta lurrazpian)	641
Hondakin organikoak: Joko Garbia txartela, poltsak...	609
Bestelakoak (gune publikoa)	601
Bestelakoak (garbiketa eta hondakinak)	599
Isuri gutxiko eremua	573
Bizikletak, bidegorriak eta bizikleta-aparkalekuak	572
TAO	531
Kirolak: ekipamendu eta instalazioak	500
Tramiteak eta izapideak	449
Bestelakoak (mugikortasuna)	433
Isunak	415
Bestelakoak (hirigintza)	400
Garraio publikoa (Dbus, taxiak....)	393
Ur-kontagailuak	388
Bestelakoak (segurtasuna eta bizikidetza)	376
Eragozpenak (zaratak, usain txarrak, isurketak)	354
Taldeen egonlekuak	330
Kirolak: jarduerak eta ikastaroak	285
Online tramitazioa	277
Ura eta saneamendua	275
Helbideratzeak	274
Erakusmahaiak eta terrazak	268
Ordainagiriak eta ziurtagiriak	238
Igogailu, arrapala eta eskailera mekanikoak	219
Etxebizitzetako obrak	211
Haur parkeak	210
Merkataritza- eta profesional-jarduerak	199
Estalkiak, hustubideak, kutxetak	183
Bestelakoak (arreta eta informazioa)	180
Hondartzak	172
Hondakin bilketa	167
Gizalegearen aurkako jokabideak	161
Irisgarritasun arazoak	157
Komun publikoak eta kabinak	150
Informazio orokorra	146
Bestelakoak (finantziera)	133
Zakurrak eta beste animaliak	127
Gune publikoaren erabilera	117
Online ordainketa	112
Gizarte zerbitzuak	105
Kirol txartela	99

Gaiak auzoen arabera

Garrantzitsua da kontuan izatea jasotako jakinarazpenen % 40ek ez dutela horien kokapenari buruzko informaziorik. Beraz, auzo bakoitzeko aurkezten diren datuak erlatiboak dira.

Era berean, garrantzitsua da argitzea auzoaren erreferentzia komunikazio bakoitzeko gertaeraren kokapenari dagokiola, eta ez komunikazioa bidaltzen duen pertsonaren bizilekuari. Hau da, komunikatzen den gertaerak edo kexak gertatu den auzoaren datua jasotzen duela, baina ez dagokio bidali duen pertsona erroldatuta dagoen tokiari.

Bestalde, azpimarratu behar da aplikazio berrian gaia zuzenean herritarrek aukera dezaketela, eta, hala egiten ez badute, eskuz egiten dela komunikazio bakoitza kudeatzean. Eskuzko prozesu bat da, eta Zuzendaritza guztiei nabarmendu zaie garrantzitsua dela gaiak behar bezala sailkatzea, informazio hobe lortzeko. Aurten, "askotariko" komunikazioak % 10etik behera jaitea lortu da, eta ehuneko hori murrizten jarraitu nahi da.

Eranskinetako taulatan ikus daitekeenez, gaiei dagokienez auzoen artean aldaketa handirik ez badago ere, berezitasun gutxi batzuk nabarmendu daitezke:


- "Zuhaitzak, landareak eta lorategiak" gaiarekin lotutako mantentze-lanen gaia nagusi da ia auzo guztietan. Salbuespenak Amaran (zirkulazioa eta trafikoa), Añorgan (edukiontzia), Grosen (edukiontzia), Loiola-Txominen (argiztapena), Alde Zaharrean (erakusmahaiak eta terrazak) edo Zubietan (edukiontzia eta hondakinak) dira.
- Lehenengo postuen artean, "Espaloiak eta galtzadak" gaia ere etengabe agertzen da auzo guztietan.
- Parte Zaharrean gai nagusiak nahiko desberdinak dira joera orokorrarekin alderatuta. Batez ere terrazekin, edukiontziekin, hondakinekin, garbiketarekin eta zirkulazioarekin dute zerikusia. Beste auzo batzuetan, Zubietan eta Igeldon esaterako, gai nagusiak ez datoz bat gainerako auzoetako ildo nagusiekin.
- Erdialdean presentzia handia dute aparkalekuei eta tasa eta zergei buruzko gaiak.
- Intxaurrondon, Altzan, Bidebietan eta Ulian "izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)" gaia aipatuagoa da gainerako auzoetan baino.
- Añorgan edukiontzien gaiak "Zuhaitzak, landareak eta lorategienak" adina komunikazio ditu.
- Grosen, "Zuhaitzak, landareak eta lorategiak" gaia oso atzean dago, bederatzigarren postuan. Garrantzitsuagotzat jotzen dira "espaloiak eta galtzadak", "edukiontzia" eta "bizikletak eta bidegorriak".

Oharra: eranskinetako 12. taulan auzo bakoitzean komunikazio gehien jaso dituzten 15 gaiak kontsulta daitezke.

Zuzendaritzen arabera

Ondorengo grafikoan, 2025ean Udal Zuzendaritzetan, Erakunde Autonomoetan eta Sozietate Publikoetan jasotako komunikazio guztien datuak aurkezten dira.

Aurreko urteetan bezala, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritzak jasotzen ditu komunikazio gehien, guztizkoaren % 47a. Ondoren, Finantzak (% 13a) eta Mugikortasuna (% 13a).




Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritza	12.833
Mugikortasuneko Zuzendaritza	3.712
Finantza Zuzendaritza	3.544
Lehendakaritzako Zuzendaritza	1.815
Osasuna eta Ingurumen Zuzendaritza	1.326
Udaltzaingoko Zuzendaritza	1.275
Kiroletako Udal Patronatua	938
Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritza	566
Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza	265
Alkatetza eta Talde Politikoak	212
Donostiako Etxegintza	186
DK - Epe Donostia Kultura	165
Proiektu eta Obretako Zuzendaritza	142
Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza	99
Ekonomia Kudeaketaren Zuzendaritza	70
DonostiaTIK	64
Euskara Zerbitzua	63
Donostia Sustapena -Zuzendaritza orokorra	73

Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren Zerbitzua	60
Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza (PSISZ)	29
Donostiako Hileta Zerbitzuak, AB (Polloe)	23
Donostia Turismoa, AB	19
Lege Zuzendaritza	9
DK - Victoria Eugenia Antzokia, SA	8
Musika eta Dantza Eskola	8
DK - San Telmo Museoa, SA	4
Anoeta Kiroldegia, AB	3
Kontuhartzailatza eta Kontabilitatea Zuzendaritza	3
Cristina Enea Fundazioa	2
Donostiako Tranbia Elkarte AB	1
Musika eta Dantza Eskola	1
Zuzendaritzarik gabe	1


Erantzun-mailaren arabera

Guztizko datuak aztertuta, ikusten da erantzunen maila berdintsu mantentzen dela iazkoarekin alderatuta. Pittin bat igo da, % 76tik % 78ra hain zuzen ere.



Beherakada hori, batez ere, komunikazio gehien jasotzen dituen udal Zuzendaritzak (Hiri Mantentze eta Zerbitzuak) 2025ean emandako erantzunen portzentaia txikiak eragiten du. Bere erantzun-maila bakarrik %58koa da. Zuzendaritza honen komunikazioak alde batera utziko bagenitu, erantzun-maila % 95 izango litzateke.

Erantzuteko denborari dagokionez, komunikazioen erdia baino gehiago lehenengo 10 egunetan erantzuten da.



Oharra: eranskinetako tauletan datu osoak kontsulta daitezke, arrazoiak eta Zuzendaritzaren arabera sailkatuta.

EBALUAZIOA

Herritarren Postontziaren aplikazioak herritarren gogobetetze-mailari buruzko ebaluazio-sistema bat eskaintzen du.

Gogoratu behar da posta elektronikoz jasotako erantzunetan herritarrak gonbidatzen direla inkesta bidez komunikazio horren kudeaketari buruz duten iritzia ematera. Kudeaketa puntuatu dezakete, baita iruzkinak egin ere.

2025ean herritarren 903 balorazio jaso dira guztira. Lortutako batez besteko puntuazioa 6,12koa da (0tik 10era) .

Taula honetan, balorazio horiek Zuzendaritzen arabera banakatzen dira. Batez besteko balorazioak interpretatzerakoan, garrantzitsua da jasotako inkesta kopurua kontuan hartzea (ezkerreko zutabea).

Kopurua	Zuzendaritza	Balorazioa (0-10)
419	Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritza	5,95
180	Mugikortasuneko Zuzendaritza	4,70
76	Finantza Zuzendaritza	8,26
64	Lehendakaritzako Zuzendaritza	7,56
57	Udaltzaingoko Zuzendaritza	6,07
26	Kiroletako Udal Patronatua	6,54
20	Osasuna eta Ingurumen Zuzendaritza	6,40
11	Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza	6,00
10	DK - Epe Donostia Kultura	6,20
8	Donostiako Etxegintza	6,25
7	Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritza	6,86
6	Proiektu eta Obretako Zuzendaritza	4,67
5	Alkatetza eta Talde Politikoak	5,60
5	Ekonomia Kudeaketaren Zuzendaritza	3,60
2	DonostiaTIK	9,00
	Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren	
2	Zerbitzua	3,00
1	Donostiako Hileta Zerbitzuak, AB (Polloe)	10,00
1	Donostiako Sustapena, AB	8,00
1	Euskara Zerbitzua	10,00
1	Lege Zuzendaritza	2,00
1	Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza	2,00

ONDORIOAK

- Guztizko datuak: 2024arekiko datuak ia-ia berdinak dira.
- Erantzun-mailak ere berdintsu jarraitzen du (2 puntu bakarrik igo da). nabarmen jaitsi da. Lehen esan bezala, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritzaren erantzunen ehuneko txikiak erabat baldintzatzen du datu orokorra. Komunikazioen erdiei baino ez die erantzun (% 58). Azken urteotan errepikatzen den kudeaketa-arazo bat da hori, eta oraindik ez da konpondu.
- Zuzendaritza hau da, alde handiz, komunikazio gehien jasotzen dituen: guztizkoaren % 47a, ia 13.000 baino gehiago. 2024arekin alderatuta, 700 komunikazio gehiago jaso ditu azken urte honetan.
- Ondoren, hauek dira komunikazio gehien jaso dituzten Zuzendaritzak: Finantzak (3.500) eta Mugikortasuna (3.700). Lehenengoarekiko aldeak kudeaketan suposa dezakeenarengatik oso handia da.
- Kexa eta abisu gehien jasotzen dituen Zuzendaritza Mantenimendu eta Hiri Zerbitzuetakoa da, alde oso handiarekin. Kexa gehien jasotzen dituen bigarrena Mugikortasuna da. Kontsulta gehien Finantzak jasotzen ditu, eta ondoren Lehendakaritzak.
- Erantzunen ehunekoei dagokienez, Finantzak (% 99) eta Mugikortasunak (% 96) oso portzentaia altuak dituzte. Hiri Mantentze eta Zerbitzuek, berriz, % 58ari baino ez diete erantzun.
- Komunikazio elektronikoak guztizkoaren %69 dira. "Leihatilatik" (aplikaziotik bertatik udal langileek) sartutako komunikazioen kopurua pixka bat hazi da. Telefonoan edo presentzialki jasotakoak dira.
- Herritarrak gehien kezkatzen dituzten gaiak ia berdinak dira, ez da aldaketa handirik nabari. Auzoz-auzo aldaketa txikiak daude, baina gai nagusiak nahiko orokortuak daude.
- Gazteenek apenas erabiltzen duten Herritarren Postontzia. 25 urtetik beherakoak % 2ra ere ez dira iristen. Aldiz, 45 eta 65 urte bitartekoek erabileren erdia suposatzen dute.
- Herritarrek komunikazioen kudeaketarekiko duten gogobetetze-maila orokorra 6,12 da. Zuzendaritza nagusien artean, Mugikortasuna da baloraziorik baxuena duena (4,80) eta Finantziera altuena (8,20).

HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK

2024an ezarri ziren aldaketek Herritarren Postontziaren kudeaketa orokorra hobetzeko balio izan dutela uste dugu.

Hala ere, 2026 honi begira doikuntza txiki batzuk proposatzen ditugu barne-kudeaketa hobetzeko, tresnaren erabilera sustatzeko eta herritarrek bidaltzen dizkiguten mezuen ulermena areagotzeko.

Barne-kudeaketari dagokionez:

- Sailekin elkarlanean ari gara kudeaketa hobetzeko. Etengabeko jarraipena egin da, gaiak ondo sailkatzeko eta modu egokian eta garaiz erantzun behar dela gogorarazteko. Laguntza horretan jarraituko dugu. Helburua erantzundako, ondo sailkatutako eta lokalizatutako ahalik eta komunikazio gehienetara iristea izango litzateke.

- "Donostia Eskura" app-a: gaur egun aplikazioak ez du uzten erabilerari buruzko daturik ateratzen, sarrerak webguneko datu orokorrekin batera kontabilizatzen baitira. DonostiaTIKi aparteko kontabilitate bat eskatuko zaio, app kanal gisa duen benetako erabilera ezagutu ahal izateko.

Kanpoko interfazeei dagokienez:

- Udalaren webgune berrian, Herritarren Postontzia erabiltzeko aukera behin eta berriz eskainiko da hainbat ataletan, batez ere gehien erabiltzen diren gaitan. Presentzia handitze horrek Postontzia gehiago erabiltzea ekarriko duelakoan gaude.

- Jasotako erantzunari buruzko gogobetetze-inkesta gero eta gehiago erabiltzen da (900 inkesta bete dira aurten, eta 600 iaz). Gaur egun, pertsonen % 4k beren iritzia ematen digute jaso duten erantzunari buruz. Ehuneko horiek hobetzen saiatzeko, inkestaren garrantzia azpimarratzen saiatuko gara.

Entzute aktiboari dagokionez:

- "Belarri" proiektuaren esparruan, herritarrek Postontziaren bidez bidaltzen dituzten mezuen azterketa semantikoa jarri nahi da abian. Adimen artifizialeko tresnak erabiliz, jada ezagutzen ditugun gaiei edo arrazoiei buruzko datu estatistiko hauetatik haratago, herritarrek Udalari bidaltzen dizkioten mezuei buruzko informazio zehatzagoa lortu nahi da.

Bestalde, Elkarrekin Donostia talde politikoak iradokizunen eta erreklamazioen batzorde berezian proposatuta, Herritarren Postontziaren 2026ko txostenak

banakatuta aurkeztuko ditu jasotako jakinarazpenen % 2 gainditzen duten gai guztiak, orain arte "beste gai batzuk" epigrafe orokorraren barruan aurkezten zirenak alegia.



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

**Herritarren Partaidetza eta Arreta
Participación y Atención Ciudadana**

HERRITARREN POSTONTZIA

2025EKO MEMORIAREN

ERANSKINA

1. TAULA: Datu orokorrak komunikazioen **arrazoien arabera**

	2021	2022	2023	2024	2025
Kontsulta	9.539	9.763	7.621	7.465	7.337
Kexa	8.053	7.918	8.275	9.770	9.917
Iradokizuna	6.431	5.759	5.468	1.407	1.172
Partea / Abisua	1.294	2.207	2.610	8.806	9.093
Notifikazioa	1.030	397	334	-	-
Erreklamazioa	698	826	785	-	-
Esker ona	385	346	333	-	-
Informazio publikoa	5	1	1	-	-
Guztira	27.435	27.217	25.874	27.448	27.519
Kontsulta	%37	%36	%38	%27	%27
Kexa	%28	%29	%29	%36	%36
Iradokizuna	%25	%21	%22	%5	%4
Abisua	%7	%8	%8	%32	%33
Notifikazioa	%1	%1	%1	-	-
Erreklamazioa	%1	%3	%3	-	-
Esker ona	%1	%1	%1	-	-
Informazio publikoa	%0	%0	%0	-	-

2. TAULA: Datu orokorrak **sarreraren arabera**

	2021	2022	2023	2024	2025
Internet	18.775	18.948	18.083	17.847	18.962
App mugikorra	1.969	2.069	2.129	1.991	1
Leihatila	5.765	5.074	4.616	6.580	7.476
Erregistroa	728	904	975	976	1.056
Sare sozialak	198	222	71	54	24
Guztira	27.435	27.217	25.874	27.448	27.519
Internet	%70	%68	%70	%65	%69
App mugikorra	%7	%7	%7	%7	-
Leihatila	%22	%21	%19	%24	%27
Erregistroa	%2	%3	%3	%4	%4
Sare sozialak	%0	%1	%1	%0	%0

3. TAULA: datu orokorrak **auzoka** *

	2024	2025
Erdialdea	995	1.122
Antigua	1.018	1.104
Gros	821	1.071
Egia	660	1.127
Amara	729	678
Altza	792	1.347
Aiete - Miramon	709	1.256
Intxaurrondo	836	1.194
Amara Berri - Riberak	600	1.956
Parte Zaharra	392	569
Loiola -Txomin	294	540
Bidebieta	277	564
Ibaeta	241	794
Martutene	213	305
Ulia	158	407
Añorga	122	238
Igeldo	62	96
Zubieta	42	69

(*) Auzoaren datua ez da derrigorrezkoa. Komunikazioen erditan baino gutxiagotan adierazten da datu hau.

4. TAULA: Datu orokorrak **generoaren arabera**

	2023	2024	2025
Emakumeak	9,241	10,070	9.303
Gizonak	7,462	8,230	7.796
(generoaren daturik gabe)	9,171	9,148	10.420

5. TAULA: amaitutako komunikazioak arrazoiaren arabera

	Guztira	Amaituak	Amaitu gabe
Kexak	9,917	7,481 %75.44	2,436 %24,56
Abisuak	9.093	6.140 %67,52	2.954 %32,49
Kontsultak	7.337	6,821 %92,97	516 %7,03
Propos. eta eskertzak	1,172	951 %91.14	220 %18,77

6. TAULA: amaitutako komunikazioen eboluzioa arrazoiaren arabera

		2021	2022	2023	2024	2025
Kexak	jasotakoak	8.053	7.918	8.275	9,770	9,917
	amaituak	%88	%74	%82	%73,67	%75.44
Abisuak	jasotakoak	-	-	-	8,806	9.093
	amaituak				%64,63	%67.52
Kontsultak	jasotakoak	9.539	9.763	7.621	7.465	7.337
	amaituak	%95	%92	%96	%92,76	%92,97
Propos eta esk.	jasotakoak	-	-	-	1,407	1,172
	amaituak				%76,11	%91.14

7. TAULA: **amaitutako kexak** Zuzendaritzen arabera

	Jasotakoak	Amaituak
Alkatetza eta Talde Politikoak	81	89%
Anoeta Kiroldedia, AB	1	100%
DK - Epe Donostia Kultura	87	79%
DK - San Telmo Museoa, SA	1	100%
DK - Victoria Eugenia Antzokia, SA	4	50%
Donostia Turismoa, AB	4	100%
Donostiako Etxegintza	33	100%
Donostiako Hileta Zerbitzuak, AB (Polloe)	6	100%
Donostiako Sustapena, AB	31	90%
DonostiaTIK	21	90%
Ekonomia Kudeaketaren Zuzendaritza	13	77%
Euskara Zerbitzua	43	98%
Finantza Zuzendaritza	224	96%
Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza	154	73%
Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren Zerbitzua	14	93%
Hiri Mantentze eta Zerbizuetako Zuzendaritza	5.059	57%
Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritza	137	55%
Kiroletako Udal Patronatua	633	100%
Kontuhartzailatza eta Kontabilitatea Zuzendaritza	1	100%
Lege Zuzendaritza	3	33%
Lehendakaritzako Zuzendaritza	127	100%
Mugikortasuneko Zuzendaritza	1.888	96%
Musika eta Dantza Eskola	6	83%
Osasuna eta Ingurumen Zuzendaritza	380	100%
Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza	1	100%
Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza (PSISZ)	3	100%
Proiektu eta Obretako Zuzendaritza	69	77%
Udaltzaingoko Zuzendaritza	892	100%
Zeharkako Zerbitzuak Koordinatzeko Zuzendaritza	1	0%

8. TAULA: **amaitutako abisuak** Zuzendaritzen arabera

	Jasotakoak	Amaituak
Alkatetza eta Talde Politikoak	26	85%
DK - Epe Donostia Kultura	11	73%
Donostia Turismoa, AB	4	100%
Donostiako Etxegintza	9	100%
Donostiako Hileta Zerbitzuak, AB (Polloe)	2	100%
Donostiako Sustapena, AB	19	100%
Donostiako Tranbia Elkartea AB	1	100%
DonostiaTIK	23	100%
Ekonomia Kudeaketaren Zuzendaritza	7	100%
Finantza Zuzendaritza	525	99%
Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza	30	67%
Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren Zerbitzua	4	100%
Hiri Mantentze eta Zerbizuetako Zuzendaritza	6.417	56%
Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritza	43	35%
Kiroletako Udal Patronatua	27	100%
Lehendakaritzako Zuzendaritza	106	100%
Mugikortasuneko Zuzendaritza	894	96%
Osasuna eta Ingurumen Zuzendaritza	603	99%
Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza	1	0%
Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza (PSISZ)	2	100%
Proiektu eta Obretako Zuzendaritza	37	68%
Udaltzaingoko Zuzendaritza	301	100%

9. TAULA: **amaitutako kontsultak** Zuzendaritzen arabera

	Jasotakoak	Amaituak
Alkatetza eta Talde Politikoak	66	89%
Anoeta Kiroldegia, AB	2	100%
Cristina Enea Fundazioa	2	100%
DK - Epe Donostia Kultura	40	78%
DK - San Telmo Museoa, SA	1	100%
DK - Victoria Eugenia Antzokia, SA	3	67%
Donostia Turismoa, AB	10	100%
Donostiako Etxegintza	144	100%
Donostiako Hileta Zerbitzuak, AB (Polloe)	14	100%
Donostiako Sustapena, AB	19	79%
DonostiaTIK	11	91%
Ekonomia Kudeaketaren Zuzendaritza	48	100%
Euskara Zerbitzua	15	100%
Finantza Zuzendaritza	2.785	99%
Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza	71	77%
Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren Zerbitzua	37	92%
Hiri Mantentze eta Zerbizuetako Zuzendaritza	965	79%
Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritza	378	52%
Kiroletako Udal Patronatua	98	100%
Kontuhartzailatza eta Kontabilitatea Zuzendaritza	2	100%
Lege Zuzendaritza	6	67%
Lehendakaritzako Zuzendaritza	1.550	100%
Mugikortasuneko Zuzendaritza	569	95%
Musika eta Dantza Eskola	2	100%
Osasuna eta Ingurumen Zuzendaritza	294	99%
Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza	90	71%
Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza (PSISZ)	18	100%
Proiektu eta Obretako Zuzendaritza	31	84%
Udaltzaingoko Zuzendaritza	66	100%

10. TAULA: amaitutako proposamen eta eskertzak Zuzendaritzen arabera

	Jasotakoak	Amaituak
Alkatetza eta Talde Politikoak	39	95%
DK - Epe Donostia Kultura	27	89%
DK - San Telmo Museoa, SA	2	0%
DK - Victoria Eugenia Antzokia, SA	1	100%
Donostia Turismoa, AB	1	100%
Donostiako Hileta Zerbitzuak, AB (Polloe)	1	100%
Donostiako Sustapena, AB	4	100%
DonostiaTIK	9	89%
Ekonomia Kudeaketaren Zuzendaritza	2	100%
Euskara Zerbitzua	5	100%
Finantza Zuzendaritza	10	100%
Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza	10	100%
Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren Zerbitzua	5	80%
Hiri Mantentze eta Zerbizuetako Zuzendaritza	392	54%
Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritza	8	25%
Kiroletako Udal Patronatua	180	100%
Lehendakaritzako Zuzendaritza	31	100%
Mugikortasuneko Zuzendaritza	361	96%
Osasuna eta Ingurumen Zuzendaritza	49	94%
Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza	7	57%
Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza (PSISZ)	6	100%
Proiektu eta Obretako Zuzendaritza	5	40%
Udaltzaingoko Zuzendaritza	16	100%

11. TAULA: amaitutako komunikazio guztiak Zuzendaritzen arabera

	Jasotakoak	Amaituak
Alkatetza eta Talde Politikoak	212	90%
Anoeta Kiroldedia, AB	3	100%
Cristina Enea Fundazioa	2	100%
DK - Epe Donostia Kultura	165	80%
DK - San Telmo Museoa, SA	4	50%
DK - Victoria Eugenia Antzokia, SA	8	63%
Donostia Turismoa, AB	19	100%
Donostiako Etxegintza	186	100%
Donostiako Hileta Zerbitzuak, AB (Polloe)	23	100%
Donostiako Sustapena, AB	73	90%
Donostiako Tranbia Elkarte AB	1	100%
DonostiaTIK	64	94%
Ekonomia Kudeaketaren Zuzendaritza	70	96%
Euskara Zerbitzua	63	98%
Finantza Zuzendaritza	3.544	99%
Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza	265	74%
Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren Zerbitzua	60	92%
Hiri Mantentze eta Zerbizuetako Zuzendaritza	12.833	58%
Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritza	566	51%
Kiroletako Udal Patronatua	938	100%
Kontuhartzailtza eta Kontabilitatea Zuzendaritza	3	100%
Lege Zuzendaritza	9	56%
Lehendakaritzako Zuzendaritza	1.815	100%
Mugikortasuneko Zuzendaritza	3.712	96%
Musika eta Dantza Eskola	8	88%
Osasuna eta Ingurumen Zuzendaritza	1.326	99%
Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza	99	70%
Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza (PSISZ)	29	100%
Proiektu eta Obretako Zuzendaritza	142	75%
Udaltzaingoko Zuzendaritza	1.275	100%
Zeharkako Zerbitzuak Koordinatzeko Zuzendaritza	1	0%

12. TAULA: jasotako komunikazioak auzoka eta gaika

Auzo bakoitzean komunikazio gehien izan dituzten 15 gai nagusienak jasotzen dira.

AIETE-MIRAMON

Zuhaitzak, landareak, lorategiak	170
Espaloiak eta galtzadak	134
Edukiontzia	104
Zirkulazioa eta trafikoa	96
Argiztapena	68
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	58
Aparkalekuak (kalean eta lurrazpian)	38
Hondakin organikoak: Joko Garbia txartela, poltsak...	36
Kale garbiketa	32
Zergak eta tasak	32
Bestelakoak (gune publikoa)	31
Bestelakoak (hiri altzariak)	28
Bestelakoak (garbiketa eta hondakinak)	27
Garraio publikoa (Dbus, taxiak....)	22
Bestelakoak (mugikortasuna)	21

ALTZA

Zuhaitzak, landareak, lorategiak	170
Espaloiak eta galtzadak	111
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	103
Argiztapena	87
Edukiontzia	76
Bestelakoak (hiri altzariak)	67
Aparkalekuak (kalean eta lurrazpian)	64
Kale garbiketa	62
Bestelakoak (gune publikoa)	47
Igogailu, arrapala eta eskailera mekanikoak	43
Bestelakoak (garbiketa eta hondakinak)	42
Bestelakoak (mugikortasuna)	27
Zergak eta tasak	27
Zirkulazioa eta trafikoa	27
Bestelakoak (hirigintza)	20

AMARA

Kale garbiketa	53
Espaloiak eta galtzadak	49
Zuhaitzak, landareak, lorategiak	45
Edukiontziak	40
Zirkulazioa eta trafikoa	36
Bizikletak, bidegorriak eta bizikleta- aparkalekuak	35
Garraio publikoa (Dbus, taxiak....)	31
Zergak eta tasak	23
Isuri gutxiko eremua	19
Aparkalekuak (kalean eta lurrazpian)	17
Taldeen egonlekuak	17
TAO	17
Argiztapena	16
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	16
Bestelakoak (garbiketa eta hondakinak)	14

AMARA BERRI – LOIOLAKO ERRIBERAK

Bizikletak, bidegorriak eta bizikleta- aparkalekuak	157
Edukiontziak	140
Zirkulazioa eta trafikoa	133
Zuhaitzak, landareak, lorategiak	129
Kale garbiketa	112
Bestelakoak (garbiketa eta hondakinak)	107
Espaloiak eta galtzadak	90
Zergak eta tasak	89
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	74
Taldeen egonlekuak	70
Argiztapena	66
Hondakin organikoak: Joko Garbia txartela, poltsak...	57
TAO	50
Eragozpenak (zaratak, usain txarrak, isurketak)	47
Bestelakoak (hiri altzariak)	45

AÑORGA

Edukiontzia	33
Zuhaitzak, landareak, lorategiak	28
Argiztapena	14
Bizikletak, bidegorriak eta bizikleta- aparkalekuak	14
Espaloiak eta galtzadak	12
Zirkulazioa eta trafikoa	12
Kale garbiketa	10
Bestelakoak (gune publikoa)	9
Eragozpenak (zaratak, usain txarrak, isurketak)	9
Zergak eta tasak	9
Bestelakoak (garbiketa eta hondakinak)	7
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	7
Bestelakoak (hiri altzariak)	6
Bestelakoak (hirigintza)	6
Bestelakoak (mugikortasuna)	6

ANTIGUO

Zuhaitzak, landareak, lorategiak	115
Espaloiak eta galtzadak	78
Edukiontzia	69
Kale garbiketa	47
Argiztapena	46
Bestelakoak (hiri altzariak)	37
Zergak eta tasak	35
Hondakin organikoak: Joko Garbia txartela, poltsak...	34
Bestelakoak (gune publikoa)	32
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	31
TAO	30
Hondartzak	29
Zirkulazioa eta trafikoa	27
Online tramitazioa	24
Eragozpenak (zaratak, usain txarrak, isurketak)	22

BIDEBIETA

Zuhaitzak, landareak, lorategiak	64
Espaloiak eta galtzadak	53
Edukiontziak	48
Argiztapena	45
Zirkulazioa eta trafikoa	44
Haur parkeak	27
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	26
Bestelakoak (hiri altzariak)	22
Kale garbiketa	20
Aparkalekuak (kalean eta lurrazpian)	19
Bestelakoak (gune publikoa)	19
Zergak eta tasak	16
Kirolak: ekipamendu eta instalazioak	12
Irigarritasun arazoak	11
Hondakin organikoak: Joko Garbia txartela, poltsak...	10

EGIA

Espaloiak eta galtzadak	97
Edukiontziak	85
Zuhaitzak, landareak, lorategiak	83
Argiztapena	73
Kale garbiketa	71
Zirkulazioa eta trafikoa	59
Bizikletak, bidegorriak eta bizikleta-aparkalekuak	51
Aparkalekuak (kalean eta lurrazpian)	40
Zergak eta tasak	37
Hondakin organikoak: Joko Garbia txartela, poltsak...	35
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	35
Bestelakoak (garbiketa eta hondakinak)	34
TAO	30
Taldeen egonlekuak	26
Bestelakoak (gune publikoa)	24

ERDIALDEA

Edukiontzia	95
Espaloiak eta galtzadak	82
Zergak eta tasak	64
Kale garbiketa	51
Zirkulazioa eta trafikoa	51
Isuri gutxiko eremua	48
Aparkalekuak (kalean eta lurrazpian)	47
Bizikletak, bidegorriak eta bizikleta- aparkalekuak	44
Zuhaitzak, landareak, lorategiak	39
Argiztapena	34
Bestelakoak (hiri altzariak)	32
Hondakin organikoak: Joko Garbia txartela, poltsak...	25
Bestelakoak (hirigintza)	24
Hondartzak	24
Bestelakoak (gune publikoak)	22

GROS

Espaloiak eta galtzadak	69
Edukiontzia	68
Bizikletak, bidegorriak eta bizikleta- aparkalekuak	58
Zergak eta tasak	49
Argiztapena	46
Kale garbiketa	44
Zirkulazioa eta trafikoa	44
Hondakin organikoak: Joko Garbia txartela, poltsak...	41
Zuhaitzak, landareak, lorategiak	39
TAO	34
Bestelakoak (gune publikoak)	31
Bestelakoak (hiri altzariak)	29
Aparkalekuak (kalean eta lurrazpian)	28
Eragozpenak (zaratak, usain txarrak, isurketak)	28
Tramiteak eta izapideak	25

IBAETA

Espaloiak eta galtzadak	103
Zuhaitzak, landareak, lorategiak	92
Zirkulazioa eta trafikoa	52
Edukiontzia	50
Hondakin organikoak: Joko Garbia txartela, poltsak...	43
Argiztapena	30
Bestelakoak (garbiketa eta hondakinak)	27
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	27
Kale garbiketa	26
Bestelakoak (hiri altzariak)	24
Bestelakoak (gune publikoa)	21
TAO	20
Tramiteak eta izapideak	19
Aparkalekuak (kalean eta lurrazpian)	17
Bestelakoak (mugikortasuna)	17

IGELDO

Edukiontzia	20
Argiztapena	12
Espaloiak eta galtzadak	9
Ordainagiriak eta ziurtagiriak	7
Bestelakoak (hirigintza)	5
Zirkulazioa eta trafikoa	4
Zuhaitzak, landareak, lorategiak	4
Ura eta saneamendua	3
Bestelakoak (segurtasuna eta bizikidetza)	2
Etxebizitzetako obrak	2
Hondakin bilketa	2
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	2
Zergak eta tasak	2
Bestelakoak (garbiketa eta hondakinak)	1
Bestelakoak (gune publikoa)	1

INTXAURRONDO

Zuhaitzak, landareak, lorategiak	139
Espaloiak eta galtzadak	116
Edukiontziak	83
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	79
Argiztapena	65
Kale garbiketa	58
Zirkulazioa eta trafikoa	54
Bestelakoak (hiri altzariak)	41
Hondakin organikoak: Joko Garbia txartela, poltsak...	41
Zergak eta tasak	41
Bestelakoak (gune publikoa)	30
Bestelakoak (garbiketa eta hondakinak)	27
Ura eta saneamendua	27
Taldeen egonlekuak	20
Tramiteak eta izapideak	17

LOIOLA-TXOMIN

Edukiontziak	66
Zirkulazioa eta trafikoa	39
Kale garbiketa	37
Espaloiak eta galtzadak	27
Bestelakoak (garbiketa eta hondakinak)	26
Zuhaitzak, landareak, lorategiak	24
Zergak eta tasak	20
Bestelakoak (hiri altzariak)	19
Hondakin organikoak: Joko Garbia txartela, poltsak...	19
Argiztapena	18
Bestelakoak (gune publikoa)	18
Bestelakoak (mugikortasuna)	15
Garraio publikoa (Dbus, taxiak....)	15
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	13
Helbideratzeak	11

MARTUTENE

Zuhaitzak, landareak, lorategiak	51
Espaloiak eta galtzadak	26
Edukiontzia	22
Kale garbiketa	22
Argiztapena	21
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	19
Zirkulazioa eta trafikoa	19
Bestelakoak (garbiketa eta hondakinak)	14
Bestelakoak (gune publikoa)	13
Bestelakoak (hiri altzariak)	9
Irisgarritasun arazoak	8
Bestelakoak (mugikortasuna)	5
Helbideratzeak	5
Zergak eta tasak	5
Garraio publikoa (Dbus, taxiak....)	4

PARTE ZAHARRA

Erakusmahaiak eta terrazak	38
Eragozpenak (zaratak, usain txarrak, isurketak)	35
Espaloiak eta galtzadak	28
Bestelakoak (gune publikoa)	25
Zergak eta tasak	22
Aparkalekuak (kalean eta lurrazpian)	20
Argiztapena	18
Kale garbiketa	17
Bestelakoak (hiri altzariak)	15
Bestelakoak (segurtasuna eta bizikidetza)	15
Bestelakoak (mugikortasuna)	14
Bizikletak, bidegorriak eta bizikleta-aparkalekuak	14
Merkataritza- eta profesional-jarduerak	14
TAO	14
Zirkulazioa eta trafikoa	14

ULIA

Zuhaitzak, landareak, lorategiak	37
Espaloiak eta galtzadak	32
Taldeen egonlekuak	31
Zirkulazioa eta trafikoa	29
Argiztapena	28
Edukiontziak	24
Izurriteak (intsektuak, arratoiak, etab.)	19
Bestelakoak (gune publikoa)	17
TAO	17
Kale garbiketa	16
Irisgarritasun arazoak	12
Aparkalekuak (kalean eta lurrazpian)	11
Bestelakoak (garbiketa eta hondakinak)	10
Bestelakoak (hiri altzariak)	9
Bestelakoak (segurtasuna eta bizikidetza)	7

ZUBIETA

Zirkulazioa eta trafikoa	11
Argiztapena	9
Edukiontziak	5
Espaloiak eta galtzadak	4
Kale garbiketa	4
Zuhaitzak, landareak, lorategiak	3
Aparkalekuak (kalean eta lurrazpian)	2
Bestelakoak (hirigintza)	2
Garraio publikoa (Dbus, taxiak....)	2
Haur parkeak	2
Irisgarritasun arazoak	2
Tramiteak eta izapideak	2
Bestelakoak (arreta eta informazioa)	1
Bestelakoak (gune publikoa)	1
Bestelakoak (hiri altzariak)	1

13. TAULA: jasotako komunikazioak arrazoia, Zuzendaritza eta generoaren arabera.

4. taulan aipatu den bezala, generoari buruzko datua ez da jasotzen komunikazio guztietan, heren batean ez baita adierazten. Beraz, hemen aurkezten diren portzentaietan, bakarrik generoaren datua daukaten komunikazioak kontuan hartu dira.

ABISUAK Zuzendaritza eta generoaren arabera:

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Alkatetza eta Talde Politikoak	7	57%	43%
DK - Epe Donostia Kultura	8	75%	25%
Donostia Turismoa, AB	1	0%	100%
Donostiako Etxegintza	5	80%	20%
Donostiako Hileta Zerbitzuak, AB (Polloe)	2	100%	0%
Donostiako Sustapena, AB	9	89%	11%
Donostiako Tranbia Elkarte AB	1	100%	0%
DonostiaTIK	11	45%	55%
Ekonomia Kudeaketaren Zuzendaritza	3	33%	67%
Finantza Zuzendaritza	278	57%	43%
Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza	14	71%	29%
Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren Zerbitzua	2	50%	50%
Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritza	3.911	54%	46%
Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritza	25	72%	28%
Kiroletako Udal Patronatua	15	47%	53%
Lehendakaritzako Zuzendaritza	52	50%	50%
Mugikortasuneko Zuzendaritza	618	31%	69%
Osasuna eta Ingurumen Zuzendaritza	389	61%	39%
Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza	1	100%	0%
Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza (PSISZ)	1	0%	100%
Proiektu eta Obretako Zuzendaritza	18	83%	17%
Udaltzaingoko Zuzendaritza	202	57%	43%
	5.573	52%	48%

KONTSULTAK Zuzendaritza eta generoaren arabera:

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Alkatetza eta Talde Politikoak	33	64%	36%
Anoeta Kiroldegia, AB	1	0%	100%
Cristina Enea Fundazioa	2	50%	50%
DK - Epe Donostia Kultura	10	50%	50%
DK - San Telmo Museoa, SA	1	0%	100%
DK - Victoria Eugenia Antzokia, SA	0		
Donostia Turismoa, AB	1	100%	0%
Donostiako Etxegintza	110	57%	43%
Donostiako Hileta Zerbitzuak, AB (Polloe)	7	14%	86%
Donostiako Sustapena, AB	7	71%	29%
DonostiaTIK	8	50%	50%
Ekonomia Kudeaketaren Zuzendaritza	25	40%	60%
Euskara Zerbitzua	8	88%	13%
Finantza Zuzendaritza	1.697	58%	42%
Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza	43	67%	33%
Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren Zerbitzua	21	90%	10%
Hiri Mantentze eta Zerbizuetako Zuzendaritza	621	57%	43%
Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritza	253	46%	54%
Kiroletako Udal Patronatua	55	49%	51%
Kontuhartzailatza eta Kontabilitatea Zuzendaritza	0		
Lege Zuzendaritza	3	33%	67%
Lehendakaritzako Zuzendaritza	914	54%	46%
Mugikortasuneko Zuzendaritza	363	46%	54%
Musika eta Dantza Eskola	1	0%	100%
Osasuna eta Ingurumen Zuzendaritza	139	55%	45%
Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza	38	47%	53%
Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza (PSISZ)	1	100%	0%
Proiektu eta Obretako Zuzendaritza	19	42%	58%
Udaltzaingoko Zuzendaritza	42	48%	52%
	4.423	55%	45%

KEXAK Zuzendaritza eta generoaren arabera:

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Alkatetza eta Talde Politikoak	60	45%	55%
Anoeta Kiroldedia, AB	0	0%	0%
DK - Epe Donostia Kultura	55	82%	18%
DK - San Telmo Museoa, SA	1	0%	100%
DK - Victoria Eugenia Antzokia, SA	2	100%	0%
Donostia Turismoa, AB	2	100%	0%
Donostiako Etxegintza	15	87%	13%
Donostiako Hileta Zerbitzuak, AB (Polloe)	6	83%	17%
Donostiako Sustapena, AB	20	55%	45%
DonostiaTIK	14	36%	64%
Ekonomia Kudeaketaren Zuzendaritza	12	25%	75%
Euskara Zerbitzua	17	65%	35%
Finantza Zuzendaritza	132	58%	42%
Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza	105	66%	34%
Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren Zerbitzua	12	58%	42%
Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritza	3.177	57%	43%
Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritza	88	56%	44%
Kiroletako Udal Patronatua	381	62%	38%
Kontuhartzailatza eta Kontabilitatea Zuzendaritza	1	0%	100%
Lege Zuzendaritza	3	67%	33%
Lehendakaritzako Zuzendaritza	81	47%	53%
Mugikortasuneko Zuzendaritza	1.289	46%	54%
Musika eta Dantza Eskola	2	100%	0%
Osasuna eta Ingurumen Zuzendaritza	266	65%	35%
Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza	0	0%	0%
Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza (PSISZ)	2	50%	50%
Proiektu eta Obretako Zuzendaritza	48	63%	38%
Udaltzaingoko Zuzendaritza	612	57%	43%
Zeharkako Zerbitzuak Koordinatzeko Zuzendaritza	0	0%	0%
	6.403	55,44%	44,56%

PROPOSAMENAK ETA ESKERTZAK Zuzendaritzaren eta generoaren arabera:

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Alkatetza eta Talde Politikoak	24	54%	46%
DK - Epe Donostia Kultura	15	73%	27%
DK - San Telmo Museoa, SA	1	100%	0%
DK - Victoria Eugenia Antzokia, SA	1	0%	100%
Donostia Turismoa, AB	1	100%	0%
Donostiako Hileta Zerbitzuak, AB (Polloe)	1	100%	0%
Donostiako Sustapena, AB	3	67%	33%
DonostiaTIK	5	20%	80%
Ekonomia Kudeaketaren Zuzendaritza	1	0%	100%
Euskara Zerbitzua	0	0%	0%
Finantza Zuzendaritza	10	40%	60%
Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza	5	80%	20%
Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren Zerbitzua	3	100%	0%
Hiri Mantentze eta Zerbizuetako Zuzendaritza	278	57%	43%
Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritza	7	43%	57%
Kiroletako Udal Patronatua	114	68%	32%
Lehendakaritzako Zuzendaritza	13	46%	54%
Mugikortasuneko Zuzendaritza	259	57%	43%
Osasuna eta Ingurumen Zuzendaritza	33	70%	30%
Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza	2	50%	50%
Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza (PSISZ)	3	67%	33%
Proiektu eta Obretako Zuzendaritza	3	67%	33%
Udaltzaingoko Zuzendaritza	13	38%	62%
	795	58,49%	41,51%